



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

**2020ko UZTAILAREN 28an, LARRAULGO UDAL PLENO ARETOAN
EGINDAKO OHIKO UDALBATZAREN AKTA**

2020ko uztailaren 28an, eguerdiko 14.00 orduetan, Maite Arana Perez Alkate andrearen Lehendakartzapean, behean aipatzen diren zinegotziak biltzen dira.

ZINEGOTZIAK: Maialen Alonso Labandibar
Vicente Garcia Momblona
Jose Antonio Rodriguez Rodriguez
Mireia Ruiz Delgado

Bere ezin etorria azaltzen du: Jesus Maria Tejada Cantero eta Aitor Beistegui Fiallegas

Bertan dago, egintzaz fede emateko Ane Gomez Urteaga Idazkari-kontuhartzailea.


...//...

Alkate-lehendakari andreak bilerari hasiera ematen dio, ondorengo gaiak tratatzen direlarik:

- 1. Ondoren adierazten den Udalbatzarretako akta onestu, hala badagokio/ Aprobación, si procede de la siguiente acta Plenaria:**
 - **2020ko ekainaren 26an egindako ohiko bilkura/ Sesión ordinaria de fecha 26 de junio de 2020.**
- 2. Alkatetza ebazpenen berri ematea/ Dación de cuenta de los decretos de Alcaldía.**
- 3. Fakturak eta ordainketak/ Pagos y facturas.**
- 4. Aiztondo Zerbitzuen Mankomunitateari 2020ko 3. Eta 4. Hiruhilabeteko ekarpenak burutzea, hala bada.**
- 5. Udal langileen opor egutegi onespena/ Aprobación de calendarios de vacaciones del personal municipal.**
- 6. Beste batzuk/Otros.**
- 7. Erregu, galderak eta mozioak/Mociones, ruegos y preguntas.**

LEHENENGO PUNTUA

ONDOREN ADIERAZTEN DEN UDALBATZARRETAKO AKTA ONESTU, HALA BADAGOKIO



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

- ▣ 2020 urteko ekainaren 26an egindako Udaltzaren ohiko bilkurako akta. Irakurri ondoren aho batez onesten dute.


BIGARRENGO PUNTUA **ALKATETZA EBAZPENEN BERRI EMATEA**

Ondoren, Udaleko Idazkari-Kontuhartzaileak adierazten du 72/2020 tik 92/2020ra Lehendakari Ebazpenak eman direla. Bertaratuak jakinaren gainean geratu direlarik.

HIRUGARREN PUNTUA **FAKTURAK ETA ORDAINKETAK**

Alkate-Lehendakari andreak ondorengo faktura zerrenda aurkeztu du:

OSTARBI	2.529,02
GRENKE	129,41
EGUR SPORT S.L.	1.573,00
MONTTE	58,43
SANIPLAST	334,50
SETALDE	6,07
GILBE	26,82
MADERPLAY	17.799,10
AMAIA NUÑEZ	30,00
EBA ERKIZIA	1.531,27
ICE PROFESIONAL	28,39
ZU ETA BOK	944,87
BASAJAUN	18,45
ULAH	404,89
FERRETERIA BARBE	51,17
GUREAK MARKETING	1,52
ICE PROFESIONAL	545,66
BERRI LANTEGIA	90,36
IRATZE LOREZAINZA	871,20
GIPUZKOAKO UR KONTSORTZIOA	5.883,03
TOLOMENDI	880,35
IBERDROLA	142,28
IBERDROLA	71,09
IBERDROLA	27,32
IBERDROLA	149,88



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

IBERDROLA	115,37
TELEFONICA	182,11
TELEFONICA	97,41

Udalbatza honek, **aho batez** hurrengoa,

ERABAKITZEN DU

BAKARRA.- Aipaturiko fakturak, denera **34.522,97** Eurotako kopurua osatzen dutenak onartzea.

LAUGARREN PUNTUA

AIZTONDO ZERBITZUEN MANKOMUNITATEARI 2020ko 3. Eta 4. HIRUHILABETEKO EKARPENAK BURUTZEA, HALA BADA

Ikusirik 2020ko uztailaren 2an Aiztondo Zerbitzuen Mankomunitateak aurkezturiko idatzia, non 2020 ekitaldiko 3. eta 4. hiruhilabetean sortu daitezkeen gastuei aurre egin ahal izateko Larraulgo Udalak burutu beharreko ekarpena 4.500,00 eurokoa dela adierazten den. Ekarpena, Larraulgo udalak eskatuta, ondoren zehazten den moduan banatzen da:

-Gizarte zerbitzuak: 4.500,00 euro

Ikusirik kreditu nahikoa aurreikusia dagoela 2020 urteko udal aurrekontuetako 421.230.00.01 partidaretan.

Gaia aztertu ondoren, bertaratuek, aho batez, ondorengoa

ERABAKITZEN DUTE

LEHENGOA.- Aiztondo Zerbitzuen Mankomunitateari 4.500,00 eurotako ekarpena burutzea 2020 ekitaldiko 3. eta 4. hiruhilabetean sortu daitezkeen gastuei aurre egiteko. 2020 urteko udal aurrekontuetako 421.230.00.01 partidaren kargura. Kontzeptu hauetan banatuta:


-Gizarte zerbitzuak: 4.500,00 euro

BIGARRENA.- 4.500,00 eurotako gastua onartzea.

BOSTGARREN PUNTUA

UDAL LANGILEEN OPOR EGUTEGIEN ONESPENA

Idazkari-Kontuhartzaile andreak Larraulgo udal langileen 2020 ekitaldirako opor egutegiak aurkeztu ditu.



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

Gaia aztertuturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengoa

ERABAKITZEN DU:

BAKARRA: 2020 urterako Udal langileek aurkezturiko opor egutegiak onartzea.

SEIGARREN PUNTUA **BESTE BATZUK**

6.1. TOLOSALDEA GARATZENI 2020 URTEKO 2. EKARPENA BURUTZEKO ONESPENA EMATEA, HALA BADA

Ikusirik 2020ko apirilaren 28an egindako Udalbatzarrean, Tolosaldea Garatzen-i, 2020 urteko ekarpena onestu zuela, guztira, 4.708 euro izanik. Bertan, lehen ekarpena burutzea onestu zuen, hau da, 2.354 eurotako diru kopurua.

Ikusirik, 2020ko irailaren 30a baino lehen bigarrenengo ekarpena burutu behar dela, 2.448,00 euroko diru-kopuruan.

Gaia aztertuturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengoa

ERABAKITZEN DU:

LEHENA: Tolosaldea Garatzen-i, 2020 urteko bigarren ekarpena burutzeko onespena ematea, 2.448,00 eurotako diru kopuruan..

BIGARRENA: 2.448,00 eurotako gastua onestea, ordainketa 2020ko udal aurrekontuetako 422.430.00.01 kontu sailaren kargura egingo delarik.


6.2. UDAL ZINEGOTZIEN BIZITZA ASEGUROEN ESLEIPENA, HALA BADA

Ikusirik Alkate eta Zinegotzien bizi aseguru burutu behar dela.

Ikusirik AXA SEGUROS-i eskatu zaiola Larraulgo zinegotzien bizi aseguru egiteko aurrekontua.

Ikusirik AXA SEGUROS aseguru etxeak aurkeztu duela eskaturiko aurrekontua.

Gaia aztertuturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengoa



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

ERABAKITZEN DU:

LEHENA: Larraulgo zinegotzi eta Alkatearen bizi aseguroa AXA SEGUROS Aseguru etxeari esleitzea, bere zenbatekoa 1.061,57 euro direlarik, eta ondoren zehazten diren arrisku-estaldurak dituelarik:

-Heriotza edozein arrazoi medio: 50.000,00.-euro

-Ezintasun absolutu iraunkorra edozein arrazoi medio:50.000,00.-euro

BIGARRENA: Erabaki honen berri, AXA SEGUROS-i ematea.

6.3. MAIALEN ALONSO LABANDIBAR ZINEGOTZIAK AURKEZTURIKO ESKAERA BERTAN BEHERA UZTEA

Ikusirik Maialen Alonso Labandibar zinegotziak, 2020ko otsailaren 17an aurkeztutako eskaera, non adierazten zuen Eusko Legebiltzar hauteskundeak zirela eta, Udal honetako edozein Mankomunitatetako ordezkariari uko egiten ziola.

Ikusita aipaturiko hauteskundeak igaro direla, aurkezturiko idatzia bertan behera uzteko eskaera luzatzen diolarik Udalbatza honi.

Gaia azterturik, Udalbatza honek, Maialen Alonso zinegotziaren abstentzioarekin, gehiengoz, ondorengoa


ERABAKITZEN DU:

BAKARRA: Maialen Alonso Labandibar zinegotziak, 2020ko otsailaren 17an aurkezturiko eskaera bertan behera uztea.

ZAZPIGARREN PUNTUA ERREGU, GALDERA ETA MOZIOAK

Ez dira aurkeztu.

Beste gairik ez dagoenez, arratsaldeko 14:20 orduak direnean Alkate jaunak bilera amaitutzat ematen du, nik, behin-behineko Idazkaria naizen honek akta honetan jasotakoa ziurtatzen dudalarik.



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

